

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4368

AGINDUA, 2023ko irailaren 11koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita 2023ko apirilaren 27ko Aginduaren babesean aurkeztutako dirulaguntza eskabideen ebazpena. Agindu haren bidez, deialdia egin zen Eusko Legebiltzarrean ordezkatura dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2023ko dirulaguntzetarako.

Ekainaren 30eko 119/2015 Dekretuak (2015eko uztailaren 9ko EHAA, 128. zk., eta haren akats-zuzenketa 2015eko irailaren 8ko EHAAn, 170. zk.) arautzen du Eusko Legebiltzarrean ordezkatura dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako dirulaguntzak emateko modua. Dekretu horretan ezarritakoari jarraikiz, Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara emango da urteko deialdiaren ebazpena.

Horri jarraikiz, honako hau

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.— Jendaurrean jartzea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2023ko apirilaren 27ko Aginduaren babesean aurkeztu diren erakunde eskatzaile onuradunak, lortu duten balorazioa, eta erakunde bakoitzari esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa (agindu haren bidez, deialdia egin zen Eusko Legebiltzarrean ordezkatura dauden alderdi politikoekin lotura duten fundazio eta elkarteentzako 2023ko dirulaguntzetarako). Datu horiek guztiak eranskinetan jasota daude.

2. artikulua.— Agindu hau Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian argitara dadin agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 11.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

I. ERANSKINA

DIRUZ LAGUNDU DIREN ESKABIDEAK

Eskatzailea	Puntuak	Esleitutako dirulaguntza (euro)
Fundación para la Europa de los Ciudadanos	40,71	3.558,00
Fundación Ramón Rubial Fundazioa	38,77	21.816,00
Iratzar Fundazioa	61,73	103.971,00
Sabino Arana Fundazioa	76,09	150.655,00
Guztira:		280.000,00

II. ERANSKINA

ARTXIBATUTAKO ESKABIDEAK

Eskatzailea	Zergatia
Fundación Alkartasuna Fundazioa	Uko egin dio dirulaguntzari